

EL TELÉFONO.




¿Humilla tu arrogancia
 Y fascina tus débiles sentidos,
 Esa invencion que, hollando la distancia,
 Trasmite la palabra, el lloro, el canto
 Y todos los sonidos?...
 Pues no te admires tanto,
 Que nada nuevo la invencion encierra:
 Siempre que un padre con amante anhelo
 Besa á su niño huérfano en la tierra,
 Oye el beso la madre desde el cielo.

JUAN JOSÉ HERRANZ.

(De La *Semana Popular Ilustrada*, de Barcelona)

EGUN ZORIONEKO BAT DURANGO-N.



Onela izenda-gentzake, zalanzaren edo bada-ezbadaren izpirik gabe, 1891-n Mayatzaren 28-ko ostegun ederra, Apaiz-berri euskalzale ta Aita Mendiburu-ren erritar Oyarzun-go seme argi Iñarra-ko On Migel-ek igaro dubena. Asteazkeneko illunaldean, egonaldi gozo eta itzazpertucho atsegiñ zenbait Ochandiyo-n, otsandiko euskera-zale Arrese-ko On Felipe-rekin egin-ondoren, eta bidenabar Urkiolako Santutegi chit agerrean zeruronz otoitz beruak bialduta, oñez Mañaria-n bera bazetorren; eta Durango-ko kale ta inguruetan likurtargi-berriaren distiadura churi-gorriskak iskiñ guzietaronz barraiatzen aize-ega-

letan asi ziradenean, sartu-zan Kurutzia-gako lorategien ondoan, bere aiskide jaun baten galdezka. Onen eta beste euskerazale baten bitartez egin zituben bereala, urrengo goizean bere *lenbiziko Meza berria* ango Kapilla agiriko batean emateko bear ziran prestamenak....

¡Eta egiaz goiz eder eta zorionekoa, Jesús Sakramentatuaren Jai-berezi edo CORPUS CHRISTI-koa; zazpiretan Kurutzia-gako Ikasechearen Eleizachoa, bere kanpaicho soñu bizien otsera bat batean jendez bete zanean! Irtenzan ordu artan *Apaiz berri On Migel* gurea, mutilcho ikasle bi Meza laguntzeko kardenal jantzian, eta erroketete churiz beste Apaiz bat aurrean zekaizkiela; argi ta lora sorta Mayatzeko erederrez apaindua zegoan Aldarearen aurrera, Apaizen eleiz-jazkera baliozko ta obeenakin; eta aingerucho ta santuen artean balegokean bezela, gizongetu ta oso zerukoitu baten eran, *lenengo Meza* emanzen. Bitartean mutil ikasleetako batzuben armoni soñu ta Sakramentubaganako kantacho egokiz laguntzen zien ere, Meza emalle ta entzunleen jaiyera eta biotzaldi bero Kristauzkoai. Asko ta asko Meza berrian Mai santura irichi ziran, On Migel-en eskuetatik Jesús maitia berenganatua izan zediñ. Meza ondoan, kapillan ta inguruban zeuden jendepilla guziak, barkamenak irabazteko, *Apaiz berriaren* eskubai muñ-eitera alderatu zitzaizkan, belaunbikoturik. Gero aiskidietako batek echebarruan, gosaldu aurrean zupituban egiñ eta irakurri zion On Migel jaunari zortzikocho bat era onetan:

Lenengo Mezan, Migel Apaiza;
 Etor zaizkitzu eskura
 Jainkotasun ta Gizatasuna
 Jesús ber-bera barrura,
 Zure biotza berea dedin
 Ta oso beraren ichura;
 Izan zaite, bai, beti berea
 Igo ta ere zerura...

Amaikak aldea izangozan Andra Maria-ko Bezero Eleiz nagusitik, zituzten pasko jantzirik ederrenakiñ, kandela eskuban, buruba erantzita, aurpegi alaiz, eunka ta berreunkako illera berdiñ egoki zuzenduetan, iya erri-guziko jendetza osoa, erdian billera santu edo Kongregaziotakoak zijoazela, lau kaleak barruna, *Jaun Sakramentatu Agriko arekiñ*, irteten asi zanean; eta an zijoan ere, su-aingeru baten ichuran, beste Apaiz askoren tartean On Migel Antonio, *Pange lingua* asitzen dan Eleiz-kanta gozo zerukoia likurtusai, usanbelar ta arrosak zear,

pozgiroz doñotu, otsalditu eta kantatzen; bitartean jiribil done edo prozesio denbora guzian kanpaien dinbi-danba, ziririkoen suchinpartak, zirzartak, danbolin chilibituen urrutiko soñu-aldiak eta kantarien uju-aldi leunak, odoi ta Anboto-ronz egalkatzen ta irristatzen ziradela.

Arratsaldean, elizkizun ta errezoak eginta, bi aiskiderekiñ Durangoko toki ta gauza begiragarrienak ikustaturik, Astarloa euskalzale ospatuaren talluirudiari agur egiñ, eta geroñeago Mikeldi ermita aurreko bide iskiñan datzan basaurde ichurako arripuska andia oinpeturik, Iurreta-ko errira laister irichi zan; eta an ogei bat Apaizen erdian topatu zuben On Migel-ek bere ikaslagun maite Apaiz berri Arana-ko On Demetrio; erri artako Bezero Apaizaren anai gaztea; eta bertatik biyak bata bestearen esku sagraduai muñ eman zien; bada ark ere lenbiziko bere Meza berria goizean Bezero Eleizan ospe andiaz, kanta baizuben.

Illunabarra zan On Migel bere bi aiskidiakiñ berriro Durango-ratu zanean; eta kaleak zear aek echeratzean, beren aurreko pauso bideak arlosa zabaletan, pozik likurtargiak argiratu ta limuritzen zituzten.

Eta orra nola, Oyarzun-go Apaiz berri Iñarra-ko On Migel Antonio-k «egun zorioneko bat Durango-n» igaro izan zuben.

Bigaramon goizeko lenengo trenean, Bizkai erdiko burni-bidetik Zumarraga-ra ta andik Irun-eratu zan pozik; urrengo Igandean nola euskerazko itzaldi egokien bat bere-erritarrai Meza nagusian egingo zien bere buruan zerabilkiela.

Jesús eta Mariak
 Gorde dezatela,
 Iñarra adiskidea
 Guk opa bezela.

